

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA


**Autobidea
berbagai /08**

AURREKONTUAK

**Udal aurrekontuak
onartu dituzte /09**

LEINTZ GATZAGA

**'Aterbe', herriko
landetxe berria /10**



BASOTXO ELKARTEA

ERRETIRATUAK INDARRAK BERRITZEN

GERRAJERA VALLE LENIZ: PROZESUA AURRERA DOA/4 • KIROLAK: ARLUTZ FUTBITO TXAPELKETA/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 3
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 4
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltégia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkartea	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAIINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaizntza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

GELLAO
Domekan 12:30ean.

OHARRAK

ELIZBARRUTIAREN IBILALDIKO TXARTELAK SALGAI

Garizumaren bukaeran, apirilaren 3an, hain zuzen, Elizbarrutiaren ibilaldia egingo dute Arantzazura. Joan gura dutenek salgai dituzte txartelak, sakristian, 8 euroren truke.

FAMILIEN MEZA ETA ERRAMUEN BEDEINKAPENA

Bihar, zapatua, familien meza egingo dute parrokian, 19:30ean. Katekesian dabiltzan umeak eta euren gurasoak daude bereziki gonbidatuta.

Domekan, ostera, erramuen bedeinkapena egingo dute, 09:00etan komentuan eta 11:45ean parrokiako atarian.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Murruxiko MEk irteera antolatu du domekarako. Lehenengo, Nafarroako Aralar mendi inguruetan mendi ibilaldia egingo dute, eta gero, Goierrri inguruko sagardotegi batera joango dira bazkaltzera.

BASOTXOKO ERRETIRATUAK BENIDORMERA

Basotxo Erretiratuen Elkar-teak bidaiari antolatu du Benidormera. Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra izango da bidaiari, eta izena Basotxon bertan eman behar da, egunero, 11:00etatik 12:00etara bitartean.

LORAMENDIRENAGENDA

BATUKADA IKASTAROA
Loramendi EEK antolatu du Euskararen Egunari begira. Martin Antxiak emango ditu eskolak, zapaturo, 11:30ean.

MAKILLAJE IKASTAROA ATZERATUTA
Apirilaren 5ean egin behar zuten makillaje ikastaroa atzeratu egin dute. Hilaren 26an izango da, 18:00etan, udaletxe zaharrean.

ORAINDELA 12URTEARETXABALETAN


Gainezka egiteko zorian egon zen Urkulu

1992ko martxoaren 25etik apirilaren 6ra bitartean, 186 litro ur jaso zituzten Urkulun. Egunik euritsuena martxoaren 26a izan zen; 42,9 litro ur jaso zituzten orduan. 1,63 metro igo zen ura urtegian, eta 331,08 metroan zegoen. Hori horrela, metro bi eskas falta izan zitzaizkion gainezka egiteko.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Aldamiño"



Aldamino.
—Aldamixoa ere entzuten da gaur egun.

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Agurtzane
30ean. Zorionak eta urte askotarako, laguneren partetik.




ESKORIATZA
Maialen Gay
30ean, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Aitor Romero
31an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Ibon Pz. de Labeaga
Apirilaren 3an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ESKORIATZA
Unai Etxebarria
4an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Jokin eta Maialen Salido
5ean, 4 eta 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik. Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna!

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak



Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- Helduendako saila.**
- 'Han goitik itsasoa ikusten da' / Julen Gabiria
 - 'Kuskue Tandem' / Iñaki Iñurrieta
 - 'Las cinco personas que encontrarás en el cielo' / Mitch Albom
 - 'Musica militar' / Wladir Kaminer
 - 'Dejame que te cuente' / Jorge Bucay
 - 'Trilogía sucia de La Habana' / Pedro Juan Gutiérrez
 - 'Carne de perro' / Pedro Juan Gutiérrez
 - 'Animal tropical' / Pedro Juan Gutiérrez
 - 'Querida hija' / Marianne Fredriksson
 - 'El último jurado' / John Grisham
 - 'La buena suerte: claves de la prosperidad' / Fernando Trias de Bes
 - 'Autobiografía de un calabacín' / Gilles Paris
- Helduendako kontsultak**
- 'Martes con mi viejo profesor' / Mitch Albom
 - 'El año que trafiqué con mujeres' / Antonio Salas
 - 'Neruda: la biografía' / Volodia Teitelboim

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA




EGUZKIGRAF

inprimategia

1979-2004

25. urteurrena


ATREBENTZIAEZPADA/ UDAko batzordiek alde egingo dau ekaiñien. Zein izengo da irtenbidie?



BIXENTE ETXEANDIA
UDAko presidentie



ARACELI HERRAN
UDAko bazkidie




MIKEL URIBETXEARRIA
Kirol zinegotzixe



NEREA GARCIA
UDAko bazkidie



JOKIN ANTIXIA
UDAko bazkidie



AGURTZANE ELKORO
Kirol zinegotzixe izendakue

Presidente figurie falta jaku; hori topaute beste batzordekidiek topauko gittuke. Hori ez bada pasetan, iraillien guraso elkartie sortu biherko geuke, baiñe ez litzake irtenbide ona izengo.

Arazorik haundixena da iñork ez dauela gure ardurarik hartu. Neure ustez entendiduten dauen lagun pare bat egon biherko litzakez, ordaindute, eta gurasuek, lagunketako egon.

Gatxa da. Kirol taldien zuzendaritzak taldie zuzendu eta gestionau bakarrik egin biherko leuke, eta gaiñetiko lanak beste batzuen eskuetan itxi. Gurasuek inpliketan hastie biherrezkue da.

Ulertzekue da zuzendaritzan erabakixe, urte asko die-eta. UDAko jarraitzaillie dan herriko kuadrilla bat animauko neuke ardurie hartzera; inportantie da jente gaztie hartzie.

Mahai baten aurrien jarri, arazuek non dazen ikusi, landu, balorau eta banan-banan konpondu biherko lirake. Bestalde, zuzendaritzako lanak samurtu dei-xiela jentie animau daixen.

Oso gatxa da. Herrixen kirol elkarte bakarra sortu biherko litzatekeela uste dot, arazue danetan dauelako. Gero, Udalan laguntzaz pertsona profesional bat hartu eta harei herritarrek lagundu.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK BEHIN-BEHINEKO GELTOKIA Beroako lantegia egon zen lekuan etxebizitzak egiten dabilzalako, Azbe lantegi parera eroan dute autobus geltokia. Behin-behineko aldaketa izan da, hau da, hilabete batzuetarako; hala ere, ez dute behar bezala jarri. Ez dauka aterperik, autobusen ordutegi berri ematen duen idatzi-rik ez dago, eta errepeida pasatzeko ez dago zebraiderik. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN / 04

CVL lekuz aldatuko dute

Foru Aldundiak geratu egin du prozesua, baina CVL enpresa lekuz aldatuko dute laster.

ASTEAN BEHIN / 05

Basotxoren batzar orokorra

Zuzendaritza batzorde berria du Basotxok. Elkar-tea piztu gura dute aurrean duten urtean.

KIROLAK / 06

Arlutz Futbito Txapelketa

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte Arlutz Futbito Txapelketako final-laurdenak; sei talde aurrez aurre.

ASTEKODATUA

20

ERRETIRATU EGON DIRA HIL HONETAN PODOLOGOAREKIN

Urtarrilean jarri zuen podologia zerbitzua martxan Basotxo erretiratu elkarteak. Hilean behin etortzen da podologoa, eta hil honetan 20 lagun egon dira. Hori bai, bazkide izan behar dute.

BESTEKEKESANA


“ Kasualitatez heldu nintzen hona; izan ere, frantses filologia ikasketak egin nituen eta nire asmoa Frantzia

lan egitea zen. 1984ko uda Parisen egin nuen lan bila, baina ez nuen zortzerik izan eta Ingalaterrara itzuli nintzen. Halako batean, Ingelesko irakaslea behar zutela Arrasateko hizkuntza eskolan irakurri nuen egunkarian, eta deitzera ausartu nintzen. Londresen egin zidaten elkarrizketa, hartu egin ninduten eta hona etorri.

Bi urte egin nituen Ahizken, baina hurrengo hiru urteetan beste hiri batzuetara joan nintzen lanera nire bikotearekin egoteko. Huelvan eta Donostian bizi izan ginen, gero ezkondu eta urtebete Ingalaterran egin genuen. Handik etorri eta Aretxabalera jarri genuen bizilekua, eta 1989az gero Ahizkeko bazkidea naiz.

MIKE CHURCH
‘Tu Lankide’/04-03-25

HERRITARRENBERBAK/ Fernando Berrizbeitia



Gezur gehiegi, ezta?

Irratia piztuta daukat eta nire belarrietara berriro entzuteko gogorik ez nuen ahots bat etortzen da. Eta halaxe dio: “badakigu zeintzuk manipulatu zuten, zeintzuk esan zuten gezurra, zeintzuk erabili zituzten gertatutakoa...” Bera da. Gure faxista txiki mindua. Mindua atzeko atetik doalako, bere inpotentzia agerian geratu delako mundu osoan (inguru hauetan aspaldi geneukan honen berri), mindua bere miseria nabariegia delako, mindua boterea galtzean zeukan bakarra galdu duelako, eta, beraz, honez gero ez da ezer, mindua jendea ez delako berak pentsatzen zuen bezain ergela.

Gertatutakoa denen bistan egonda ere, kontrako bertsioari eusten jarraitu. Nola uler daiteke? Hau surrealista da. Argudio guztiak alde batera lagata, soilik gezurra erabiltzea. Argudio txarrak argudio egokien bidez indargabetu daitezke. Baina gezurre-

kin zer egin daiteke? Urteak daramatzagu gezurrak entzuten eta manipulazioak jasaten, eta ematen du ohitu egin garela. Edozerk balio du. Ez da ezer gertatzen. Esandakoa desagertu egiten da, haizeak eramaten du, nahiz eta dena grabatuta geratu. Jendearen adimena iraindu egiten dute. Eta hori orokortzen ari da politikagintzan: alderdi ezberditan aurki daitezkeen jarrera da. Gezurra sistematiko ki esatea oso merkea da. Nire iritziz hauteskundeetako ezustea salbuespen

bat besterik ez da. Gezurra esatearen ordaina harrapatua izatearen kaltea baino oparoagoa den bitartean politiko sudur luzeak ugaritu egingo zaizkigu.

Politikarien artean: manipulazaleak, apoltronatuak, epelak, beroegiak, gezurtiak, ustelak, ilunak, motzak, faxistak, ergelak, beldurtiak, ausartegiak... Eta, hala ere, beraien karguetan betirako. Ez al dugu hobeagorik merezi?

“Gertatutakoa denen bistan egonda ere, kontrako bertsioari eusten jarraitu. Nola uler daiteke? Hau surrealista da”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaleta
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Kirolez kirol

Udabarrixen kirola egiteko gogue sartzen ei jaku danoi. Bueno batzui beste batzui baiño gehixau. Hala, gaur kirol kontuek dakart. Baiñe urte dani en entretetan ibiltten dien kirolarixek aittetuko dittut; izen be, egindeko lanak bere frutue emun dutzie.

Domekan jokatu euien Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azken probie. Infantillen maillan **Markel Uriarte** txapeldun geratu da, eta **Unai Mendikute** bigarren. Nesken maillan, ostera, **Nagore Uriarte** bigarrena izen da. Ez dau gero bape txarto. Zorionak hiruroi; seguru nau, hurrengo txapelketien zain dazela.

Txirrindularitzan, ostera, **Antxon Anduaga** aittetu biher dot. Izen be, joan zan zapatuen Beasain-Beasain txapelketan hartu euen parte. Guztire 122 txirrindulari ibilli zien norgehiagokan, eta Antxon laugarren sailkatu zan. Gaiñera, esprintean jausi egin zan aretxabaletarra. Hori ikusitte, txapeldune daukogu hurrenguen.

Bukaketako **Jon Diaz** be edarto ibilli da automobilaz mendiko lasterketan. Bigarren sailkatu zan asteburuan egin euen txapelketan.

Kirolari bikaiñak dittugu herrixen, eta asteburuen pelotarixek eukiko daue zeresana.

HIRIGINTZA/ Foru Aldundiak aldaketa batzuk egiteko eskatu dio Udalari plan partziala onartu ahal izateko

Aurrera doa Cerrajera Valle Leniz enpresa Errotetxe osteko lurretan kokatzeko prozesua

MIRARI ALTUBE

Orain hilabete batzuk iragarri bezala, Errotetxe baserri osteko lurretan industrialdea egingo dute. Cerrajera Valle Leniz enpresa jarriko dute bertan. Horretarako, ostera, hainbat aldaketa egin beharko ditu Udalak plan partzialean Foru Aldundiak eskatuta.

Urrian onartu zuen Udalak Errotetxe baserri osteko lurretan industrialdea eraikitze plan partziala. Foru Aldundiari aurkeztu zion gero, eta hark hainbat aldaketa egiteko eskatu dio.

ALDAKETAK PLAN PARTZIALEAN

Udalak azaroan onartu zuen 1-A sektorerako plan partziala, baina Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Sailak ez du onartu. Hainbat aldaketa egiteko eskatu dio; izan ere, beste kontu batzuen artean 1-A sektorea errepideari dagokion lurretan sartzen da. Diputazioak eskatzen du, batetik, industrialdea eraikitze mugak zehaztea, eta gaineratzen du plan partzialean ez dela aurreikusen apartakurik enpresaren beharretarako. Eskatutako aldaketok egin dituztenean, osoko bilkura eginda onartu beharko du Uda-



Errotetxe osteko lurretan kokatuko dute Cerrajera Valle Leniz lantegia, nahiz eta prozesua zertxobait atzeratu.

lak plan partziala, eta berriro aurkeztuko dio Aldundiari.

Aretxabaletako sarreran kokatuko duten industrialdea Ortubar SA enpresak eraikiko du. Cerrajera Valle Leniz enpresa-

rendako izango da eraikinik handiena: 6.500 metro koadro, hain zuzen ere. Eta Udalak 882 metro koadro izango ditu bertan.

Cerrajera Valle Leniz enpresa Lausitta kalean dago. Udalak

herritik atera gura du: batetik, lantegia dagoen lekua toki egokia delako etxebizitzak egiteko, eta bestetik, kamioi handiek arazak izaten dituztelako enpresara sartzeko eta bertatik irteteko.



Ivan Vazen arropak atentzioa eman zuten Gasteizen

Gasteizen antolatutako moda desfilean hartu zuen parte joan den astean Ivan Vaz diseinatzaile aretxabaletarrak. Bederatzi diseinatzaile gaztek aurkeztu zituzten diseinuak. Hinduen kulturaren oinarritutako arropak erakutsi zituen Ivanek: urre-koloreko arropak eta prakak nagusi. Kalean erabiltzeko moduko arroparik ez zuen erakutsi, baina atentzioa eman zutenik ezin ukatu. /M.A.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
ARETXABAleta
Tel: 943 79 01 28

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

ERRETIRATUAK/ Hainbat ekintza dituzte urtean zehar egiteko, eta tabernak mugimendu handiagoa izatea gura dute

Basotxori bizitasun handiagoa ematea du helburu erretiratuen elkarteko batzorde berriak

M.A.

Zuzendaritza batzorde berria du Basotxo erretiratuen elkarteak. Hiru lagun sartu dira orain, eta lehendik zeuden laurekin batzorde berria osatu dute. Hainbat ekintza gertatu dituzte urterako, baina erronka nagusia elkarteari mugimendu handiagoa ematea izango dute.

Martxoaren 16an egin zuen batzar orokorra Basotxo elkarteak. Urteko ekintzen berri eman eta zuzendaritza batzordea berritu zuten.

EKINTZA UGARI URTERAKO

Erretiratuen elkarteak 816 bazkide ditu. Hala ere, inork ez du zuzendaritza batzordean parte hartu gura. Orain arte, bozketa bidez aukeratzen ziren kideak, baina aurten, lan egin gura duten boluntarioen bila ibili dira. Hona zuzendaritza batzorde berria: Emiliano Altube da presidentea, Pedro Mari Zubizarreta presidenteordea, Andoni Antxia idazkaria, German Gonzalez idazkariordea, Antonio Diez diruzaina eta Benito Sanchez, Honorino Marcos eta Antonio Villar kideak.

Dagoeneko antolatuta dituzte urterako ekintzak. Batetik, podologia zerbitzua jarri dute aurten; Alex Azkarate Morras podologoa etortzen da hilean behin, eta poliki-poliki gero eta bazkide gehiago hurreratzen da. Bestetik, ikastaroak eta hitzaldiak dituzte. Osasunarekin lotutako sei bat hitzaldi egingo dituzte urtean, eta eskulan ikastaroak ere egongo dira.



Zuzendaritza batzordeko kideek diote bazkideek gutxi parte hartzen dutela antolatutako ekintzetan; baita tabernan bertan ere.

Txangoak eta bidaiak ere antolatu dizkiete zuzendaritzako kideek bazkideei. Oinez egitekoak diren lau edo bost txango egin gura dituzte, eta beste horrenbeste bidaiak ere antolatuko dituzte; apirilean, esaterako, Benidormera joango dira hainbat erretiratu.

TABERNA BERRITU BEHARREAN

Erronkarik garrantzitsuenak, baina, elkarteari mugimendu handiagoa ematea izango dute. 800 bazkideetik gora izan arren parte hartzea oso txikia da. Hala, hori hobetzeko, taberna berri egin beharko litzatekeela diote. Oso za-

hartua dago, batzordekideen esanetan, eta hainbat berrikuntza behar ditu: argiteria aldatu, telebista handi bat jarri, dantzan egiteko lekua egin... Dagoeneko egin dizkiote proposamenak Udalari, eta aldaketak aurten etorriko diren itxaropena daukate.



Abestiz jositako antzerkiarekin gozatu zuten ludotekako umeek

Hiruhilabeteari bukaera eman eta Aste Santuko oporrak jai giroan hartzeko antzerkia eskaini zieten ludotekako arduradunek umei. Zenbat Gara taldearen eskutik *Hamaika koloretan dantzan* antzezlanak ikusi zuten martitzen arratsaldean udaletxe zaharrera hurreratu ziren 50en bat umeek. Hainbat pertsonaiaren laguntzarekin kantuan pasatu zuten antzezlanak iraun zuen tartea. /M.A.

LABUR

Familien meza egingo dute bihar, parrokiak

Familiendako meza antolatu du parrokiak. Bihar, zapatua, egingo dute, 19:30etan parrokiak, eta bereziki, katekesian dabilzan umeak eta gazte txoak eta euren gurasoak gonbidatu dituzte.

Batukada ikastaroa antolatu du Loramendi EEk

Batukada ikastaroa antolatu du Loramendi EEk. Aurtengo Euskararen Egunean herritarren parte hartzea bultzatu gura dute Loramendiko arduradunek. Hori horrela, herritar guztiei egiten diete dei batukada ikastaroan parte hartu eta gero Euskararen egunean jotzeko. Zapatuetan da 11:30ean, udaletxe zaharrean.

Benidormera joateko lekua dute autobusean

Basotxo Erretiratuen Elkarteak bidaia antolatu du Benidormera. Apirilaren 24an aterako dira Aretxabaletatik eta maiatzaren 8an itzuli. Gutxiengo kopurua lortu dute, baina autobusa oraindik ez dute bete, hortaz, salgai dituzte txartelak. 11:00etatik 12:00etara bitartean pasatu Basotxotik erosteko.

Bukatu dituzte Euskal Herriaren historiaren gaineko hitzaldiak

M.A.

Euskal Herriaren historiaren gaineko hitzaldi zikloa egin dute Kurtzebarri eskolan. Azaroan hasi eta eguaztenean bukatu zuten, Gaizka Aranguren eta Iñaki Perurenak egindako hitzaldiarekin.

Bost hitzaldi egin dituzte guztira Kurtzebarri eskolan, eta Euskal Herriaren historiari gainbegiratu emateko aukera izan dute bai eskolako kideek, bai herritarrek.

NABARRALDE ELKARTEKO KIDEAK

Nabarralde Elkarteko kideak etorri dira Euskal Herriaren gainean berba egitera. Tomas Urzainki, Mikel Sorauren eta Erlantz Urtasun historialariak izan ziren beste batzuen artean. Azken hitzaldia, oster, Gaizka Aranguren kazetariak eta Iñaki Perurena harri-jasotzaileak egin zuten eguaztenean. Euskal Herria izenaren gainean egin zuten berba,

estruktura juridiko-politikoaren gainean; baita Nabarralde proiektuaren gainean ere. Hain zuzen ere, eguazteneko horiek osatu zuten hitzaldi zikloa.

BALORAZIO BAIKORRA

Euskal Herriaren historiaren gaineko hausnarketa egitea zuen helburu Kurtzebarri eskolak hitzaldiok antolatzerakoan. Eskolan landu zuten lehenengo gaia, eta herritarrei zabaltzea erabaki zuten gero. Rosa Urreta irakaslearen esanetan balorazio bakorra egin dute: "Gorabeherak izan dira hitzaldietan parte hartzerakoan, baina gurasoek gain herritarrek ere hurreratu dira eta interes handia azaldu dute".

Jasotako informazioarekin eskolan egiten dituzten ekintzak osatzeko asmoa daukate. Ez hori bakarrik, Nabarralde Elkarteak unitate didaktikoak kaleratuko ditu eta Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako proiektuetan barneratuko dituzte.



ARTXIBOA

Bihar jokatu dituzte final-laurdenak sei taldek, eta apiril bukaerako utziko dituzte finalerdiak eta aurtengo finala.

FUTBITOA

Bihar jokatu dituzte Arlutz futbito txapelketako final-laurdenak

Fonta Sport taldea sailkatu da lehenengo postuan eta zuzenean pasatu da finalerdietara

MIRARI ALTUBE

Urrian hasi ziren jokatzeko Arlutz Futbito Txapelketa. Bederatzi taldek hasi zuten txapelketa zazpi bukatuko dute. Bihar, zapatua, final-laurdenak jokatu dituzte. Sei talde izango dira aurrez aurre, Fonta Sport zuzenean sailkatu delako finalerdietarako.

Arlutz Futbito Txapelketa bukatzekotan dago. Bihar, final-laurdenak jokatu dituzte, eta apiril bukaeran finalerdiak eta finala izango dituzte onenek.

LAGUN KOADRILAK

Arlutz tabernako kideek ia urtero antolatzen dute lagun koadrilen arteko futbito txapelketa. Partiduak Arlutz osteko kantxan jokatzen dituzte zapatuetan, eta aurten ere oso giro ona sortu da parte-hartzaileen eta ikusleen artean. Futbola gustuko dutenek ematen

dute izena, eta aurten parte hartu duten talde guztiak aretxabaletarak dira.

FONTA SPORT LEHENENGO

Bederatzi taldek hasi bazuten ere txapelketa, zazpi heldu dira bukaerara; Lusos eta Papi Txungo taldeek bertan behera utzi zuten txapelketa. Hemendik aurrera partidu erabakigarriak izango dituzte zazpi horiek. Fonta Sport taldeak txapelketa polita egin du, eta sailkapeneko lehenengo postuan geratu da. Bere atzetik geratu dira

gainerakoak, eta hona nola osatu duten sailkapena: Peña Hugo, MCM, TPM, Kemen, DDK eta Somos 4.

Fonta Sportek ez du final-laurdenik jokatu, eta zuzenean finalerdietara pasatu da. Gainerako seiak partidua izango dute bihar, finalerdietara zein pasatuko den erabakitzeko. 12:00etan, Somos 4 eta Peña Hugo izango dira aurrez aurre Arlutz taberna osteko kantxan; 15:00etan, TPM eta Kemen; eta 16:00etan, DDK eta MCM.

APIRILAREN 24AN FINALERDIAK

Bihar jokatu diren sei partidu horietatik hiru onenak aukeratu dituzte. Hiru horiek, Fonta Sport taldearekin batera, finalerdietako bi partiduak jokatu dituzte. Apirilaren 24an izango da hori. Partidu horien ostean finala jokatu duten biak izendatuko dituzte. Finalerako eguna oraindik zehaztu barik dute antolatzaileek, baina apirilean izango da seguru asko.


Fonta Sport taldeak txapelketa polita egin du, eta lehenengo dago sailkapenean

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte Oion-Uriartek eta Errasti anaiek

Udaberri Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte asteburuan, eta Aretxabaleako bi bikote egongo dira. Oion-Uriarte bikoteak hirugarren mailako seniorren finala jokatu du Zumarragako bikotearen aurka. Oso txapelketa polita jokatu dute aretxabaletarrek, ez dute eta partidu bat ere galdu. Zumaian izango da finala, gaur, egubakoitza, 19:30ean. Errasti anaiek, oster, lehen mailako seniorren finala jokatu dute domekan, 10:30ean, Oñatin. Urretxuarrak izango dituzte aurrez aurre.

FOTOKIROLA



Karate erakustaldi polita egin zuten

Joan den zapatuan, karate taldeko kideek erakustaldi polita eskaini zieten kirol etxera hurreratutakoiei. Beroketa ariketak, oinarritzko teknikak, defentsa pertsonala eta borrokan egiteko erak erakutsi zizkieten Odilo Vazquezen ikasleek. /M.A.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Santo Tomas

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA/Almen-Allerru

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA

Oion/Uriarte-Zumarraga

Egubakoitza. 19:30. Zumaia.

Errasti anaiek-Urretxu

Domeka. 10:30. Oñati.

EMAITZAK

FUTBOLA

Urola 0 UDA 1

Preferentea.

UDA 5 Martutene 3

Ohorezko gazteak.

Ostadar 2 UDA 1

Lehenengo mailako gazteak.

Bergara 2 UDA/Almen 1

Lehenengo mailako kadeteak.

Kostkas 3 UDA 0

Bigarren mailako kadeteak.

UDA 2 Real Union 1

Ohorezko infantilak.

Aloña 1 Almen/UDA 9

Emakumeen kopa.

Urki 0 Almen/UDA 2

Emakumeen kopa F-8.

UDA 5 Zumaia 4


Alebinak.

Lasai

**Mirian Manteca
masajista**

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia:
 - Kraneala
 - Estrukturala
 - Funtzionala
- Lotura muskularrak



*Hirusta
Jatetxea*

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA

943 79 64 91


605 71 66 92 / 629 47 72 70



*Matikua
jattetxea*

Azata auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

HURRETIK



Zuriñe
Velez de Mendizabal

ARETXAGAZETako kazetarixe

Martxoaz geroztik ARETXAGAZETako kazetarixe da, baiñe Aretxabaletako kontuez gain Eskoriatzakuen eta Gatzagakuen berri be emuten dusku. Mondragoetarra da, eta aurten bukatuko dittu kazetaritza ikasketak.

Mondragoetarra zara, baiñe oin arte ez zittuen asko ezauketan Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga; ez da hala?

Bai, halaxe da. Oin arte herri moduen ezauketan nittuen bakarrik. Oin herritarrak ezautu biher dittut, euren lana zein dan... Ondiokan lan haundixe dauket aurretik.

Nahiz eta ikasketak bukatu barik euki kazetari lanien badaukotzu esperientzia. Oin arte zetan ibilli zara?

Herri aldizkarixetan egin dot lan gehixen. Hasi, Arrasate Pressen hasi nintzen eta oin, Aretxagazeta eta Zebarrin. Baiñe Goienkarian be ibilli nintzen hillebetez. Oingo lanien hasi aurretik, baiñe, Interneteko aldizkari baten egon nintzen hiru hillebetien, Euskonews-en. Hortaz, oso lan desberdiñek egin dittut.

Lanbide honetan zer da gustukuen dozune?

Gehixen bat jendiekin harremanetan egotie.

Betidantik egin gura izen dozu lan kazetari moduen?

Bai, beti gustau izan jat idaztie; horreatik erabaki neuen kazetari ikasketak egittie. Lanbide hontan ez bazan, ez dakit zetan ibilliko nintzen gustura.

Prentsa idatzixen egiten dozu lan; telebisiñuen edo irratiñen ez zara saiatu?

Ez dot telebisiñorako balixo. Ikasketak egitterakuen prentsarako gertaketan daue batez be. Telebisiñorako balixo izetie eta aurregixe izetie garrantzitsue da neure ustez. Irratiñen oin hasi naz, astero Eskoriatza eta Gatzagako agendaren berri emuten. Baiñe prentsan nabil gustoren.

Gure herrixetan ohittute dau jentie herri aldizkarire joten? Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako herritarrak kostata etorten die aldizkarire. Arrasaten ibilli nintzenien jende gehixau gerturaketan zan erredakziñora, neure ustien behintzet. Seguru asko, herri handixaue dalako izengo da.

Narru sendue biher da kazetarixe izeteko?

Ez dot uste kazetari izeteko bete biherreko baldintza danik. Aurretik esan doten moduen, telebisiñorako narrue euki biher dala uste dot. Prentsarako, baiñe, ez da biherrezkue. Ni oso lotsatixe naz, eta lanbide hontan oso gustora nabil.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Eli Berridi

Bretainia / 2004ko martxo

A rizmendi ikastolako ikasle batzuk Bretainian izan dira orain hilabete eskas. Frantseseko ikasketak egiten dabilzan 32 ikasle eta irakasle bi joan ziren, hain zuzen; 14, 15 eta 16 urteko neska-mutilak. Horietaiko bat Eli Berridi aretxabaletarra izan zen. Bidaiaren helburua frantsesa gertutik ezagutzera zuten, hau da, ikastolan ikasitakoarekin molda daitezkeela ikustea.

Autobusean egin zuten bidaia Bretainiara; 14 orduko bidaia luzea: "Ohedun autobusean joan ginen; eskerrak horri. Hala ere oso bidaia luzea izan zen". Bost egun egin zituzten guztira, eta Bretainiako hiri bi ezagutu zituzten: Brest eta Camper. Hiriak eta hiritarrak, noski. Bertako ikasleek eman zien ongiatorria, eta euren etxeetan egin zuten lo. "Camperren egun bi egin genituen bertako familien etxeetan" dio Elik. "Oso ondo hartu gintuzten, eta ez genuen inolako arazorik izan". Frantsesa erabiltzeko aukera izan zuten, nola ez; baina bertako ikasleak nahiko ondo moldatzen ziren gaztelerez. "Ondo egiten zuten berba gaztelerez eta ez genuen izan arazorik hizkuntzarekin". Gainera, Britainiarren gaztelera irakaslea izan zuten gida lagun, eta bertako txoko guztiak erakutsi zizkieten.



"Ongietorri jaia antolatu ziguten Bresteko eskolakoek, eta oso ondo pasatu genuen"

"Asko zekiten euskaldunon gainean; izan ere, gurekin oso identifikatuta sentitzen dira"

Brest hirian, bestalde, beste gau bi egin zituzten: gau bat eskolan egin zuten lo, eta beste gau bat ikasleen familiekin. "Ongietorri jaia antolatu ziguten eskolakoek eta oso ondo pasatu genuen" dio Elik. Izan ere, Bretainian ez dago gauetan kalera ateratzeko halako ohiturarik: "Hiriko, bertako familien etxeetan geratu zirenak -batzuk hiritik kanpo geratu ziren- gauean atera ziren, baina ez tabernetara, lagun baten etxean elkartu eta bertan egin zuten festa".

Bretainiarrak eta euskaldunak antzekoak ei gara: "Asko zekiten euskaldunon gainean; izan ere, gurekin oso identifikatuta sentitzen dira. Diwan izeneko eskoletara joaten dira eurak, hau da, bretoiera ikasten duten eskoletara, eta batzuk etxean ere egiten dute berba bretoieraz". Beste kontu batzuetan, ostera, oso ezberdinak ei ziren: "Janzteko era oso berezia daukate".

Krepeak jan eta jan eginda itzuli ziren Arizmendiko ikasleak. Orain Camperreko eta Bresteko ikasleei tokatzen zaie etortzea, eta hala egingo dute apirilaren 23an: "48 ikasle etorriko dira, eta guk Euskal Herria erakutsiko diegu" bukatu du Elik.

M.A.



Orain bretoiei tokatzen zaie gure ibarrera etortzea: apirilaren 23an 48 ikasle etorriko dira Brest eta Camper hirietatik.

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95


Jou Diaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

JAUSORO OSTATUA



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61



EGYNEKO MENYK
OTARTEKORK ETA
PLATER KONBINATYK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 12a / 159. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirári Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@golena.com • Lege gordailua: SS200/99


Autobideak eragingo dien lur-jabeei laguntzeko hainbat puntu onartu dituzte

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Urte amaieran hasiko dituzte Eskoriatza iparraldea eta Araba bitartean egingo duten autobide zatiaren lanak. Autobideak, baina, hainbat ondorio ekarriko ditu. Hori dela eta, Udalak hainbat puntu adostu ditu, eraginak jasango dituztenei laguntza emateko.

Gasteiz eta Eibar artean egingo den autobidearen zati bat Arlabandik igaroko da. Proiektua aurrera eramateak hainbat ondorio ekarriko ditu. Horietariko bat da eskoriatzar batzuei euren lurren jabetza kenduko dietela. Guztira 120 bat hektarea desjabetuko dituzte autobidea egikaritzeko. Eragina jasango dutenek aste honetan proiektuaren arduraren enpresarekin egoteko aukera izan dute. Batzuei aldi baterako kenduko dizkiete lurak, eta beste batzuei, berriz, betiko.

Hori dela eta, martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran, ondorioak jasango dituztenei laguntza eta kolaborazioa eskaintzea adostu zuen herriko Udalak. Gainera, proiektuaren gaineko edozein informazio jakinaraziko



Gatzagako iparraldea zeharkatuko du autobideak, eta bi tunelez gain, hainbat zubi eraikiko dituzte elizateetan.

zaiela ziuratu nahi die Eskoriatzako administrazioak.

Bestalde, lurak okupatzeko legezko arrazoirik izan ezean, Udalak Gipuzkoako Foru Aldun-

diari lanak geratzeko eskatuko diola adierazi du.

Proiektua urte amaiera aldera hasiko dela adierazi du Foru Aldundiak. Eta lanak Marin eta

Araba lotuko dituen tuneletik hasiko dituzte ziurrenik. Denbora luzeen hartuko duen lana izango delako hasiko dira hortik; guztira 3,7 kilometro luze dena.

Proiektuaz duen informazioa aditzera emango duela hitzeman du herriko Udalak

Maringo tunela egiten hasiko dira, Eskoriatza eta Araba arteko lan luzeena

Marinen eta Zarimutzen egingo dituzten tunelez gain, hainbat zubi ere eraikiko dituzte



Jende ugari gerturatu zen ur-parkera

Eskoriatzako Udalaren eskutik, martxoaren 28an, domekan, gazteentzako ur-parkea jarri zuten herriko igerilekuan. 16:00etan hasi eta 20:00ak arte izan zuten gazteek igerilekuan jolasteko aukera. Lau puzgarri jarri zituzten igerilekuan, eta guztietan jolasteko aukera izan zuten. Gainera, ederto igaro zuten parte-hartzaileek. Alboko argazkian, Eskoriatzako kiroldegira gerturatu ziren 10 urtetik gorako herriko hainbat gazte agertzen dira. /Z.V.M.

LABUR

Indigenen gaineko hitzaldia egin zuten herenegun

Eguaztenean, hilaren 31n, eskoriatzar batek liburua aurkeztu zuen kultura etxean. *Ilargiaren seme-alabak* du izenburu Daniel Barandiaranen liburua. 82 urteko eskoriatzar horrek urte mordoa egin ditu misiolari; Saharan eta Venezuelan ibili da, besteak beste. Hain zuzen, Amazonasko yanomani tribu indigenaren gaineko hitzaldia egin zuen herenegun. Misiolari lanaz gainera, Barandiaran Venezuelako Gobernuan ibili zen indigenen eskubideen alde lanean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ELIZ OHARRAK

Igande honetan, apirilak 4, erramuen bedeinkapena egingo dute Eskoriatzako parrokiari jarraituz, parrokiako atarian egingo da erramuen bedeinkapena. Orduari dagokionez, 11:45 aldera izango da.

KZGUNeko IKASTARoAK

Apirilean zehar hainbat ikastaro eskainiko dituzte Eskoriatzako KZgunean. Batetik, Interneten gaineko oinarrizko ikastaroa emango da, ordutegi ezberdinetan. Bestalde, apirilaren 16an, IT Txartela eskuratzeko aukera izango dute interesatuek.

AXTROKIRENAGENDA

JAI BEREZIA

Haurrentzako hitzordua izango da apirilaren 6an, martitzena. Egun horretan, Tortolis ludotekara gerturazten direnek *Jai berezian* parte hartzeko aukera izango dute, Axtrokik antolatuta.

UDAL AURREKONTUA IAZKOA BAINO %11 TXIKIAGO DA

Aurrekontuaren zati garrantzitsu bat Santa Ana urbanizatzeko

Z.V.M.

Aurreko asteko egunean, martxoak 25, ohiko osoko bilkura egin zuten udaletxeko bilkura aretoan. Bertan, askotariko gaiak jorratu zituzten udal ordezkariak. Landutako gaien artean, 2004ko aurrekontua onartzea zegoen, eta halaxe egin zuten aho batez. Guztira 5.216.000 euroko aurrekontua izango du Eskoriatzako Udalak aurten, iazkoa baino %11 txikiagoa, 2003an ia sei milioi eurokoa izan zuen-eta.

AURRERA ATERATZEKO EGITASMOAK

Onartutako diruarekin hainbat proiektu jarriko dituzte martxan. 400 mila euro Santa Ana auzoa urbanizatzeko erabiliko dira. Beste 200 mila euro erabiliko dituzte kiroldegi inguruan dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko. Barruan ere egingo dituzte lanak, kantxaren zorua berriztatu egin gura dute-eta, besteak beste.

Aurrekontuaren 120 mila euro Hiria Berriztatzeko Egitasmora bideratuko dituzte, eta beste 60 mila bideragarritasun planera.

Udalak
5.216.000 euroko
aurrekontua
onartu zuen
aho batez

Bestalde, aurrekontuaren diruak hiru lanpostu sortuko ditu; bi finkoak izango dira: udaltzain eta liburutegi laguntzaile lanpostuak; eta beste bat behin-behinekoa: zerbitzu eta ingurumen teknikaria.

ELIZATEETARAKO HIRU INBERTSIO

Herriko Udalak onartutako aurrekontutik 290 mila euro bideratuko dira elizateetara. Hiru inbertsio izango dira nagusiak. 100 mila euro egoera kaxkarrean dauden errepideak konpontzeko erabiliko dituztela adostu zuten osoko bilkuran.

Elizateetan hainbat lokal egin gura dituztela adierazi zen, eta egitasmoa aurrera ateratzeko, 60



Osoko bilkuran onartu zituzten aurtengo udal aurrekontuak.

mila euro bideratuko ditu Udalak Eskoriatzako auzoetara.

Azkenik, telebista seinalea jasotzeko duten arazoari irtenbidea eman nahirik, 130 mila euro

inbertituko dituztela jakinarazi dute udal ordezkariak. Aurrekontu horren barruan sartzen da Internet jasotzeko Wi-Fi sistema.



Garizumari amaiera emateko, Arantzazura

Bihar irteera egingo dute Arantzazura, Gipuzkoako Elizbarrutiaren ekimenez. Garizumari amaiera emateko eta aldi berean bakearen alde otoitz egiteko antolatzen du urtero Elizbarrutiak irteera. Animatzen direnek 08:20an hartuko dute autobusa Eskoriatzako geltokian. Erramu Igandearen bezperan, Oñatitik Arantzazura arteko zortzi kilometroak oinez egitera jende ugari joaten da, Gipuzkoatik, urtero. /Z.V.M.

LABUR

Bi bidaiak antolatu ditu Eskoriatzako Olazar elkarteak


Olazar elkarteak hainbat irteera antolatu ditu apiril eta maiatzerako. Lehenengoa apirilaren 24tik maiatzaren 8ra egingo dute, eta Benidorm aldera joango dira; autobus bat joango da. Bigarren irteera, berriz, Zaragozara antolatu dute Olazar elkarteak. Maiatzean izango da irteera, hilaren 10etik 12ra. Izenematea Olazar elkartearen egin beharko da, apirilaren 13tik 16ra. Egun horietan, egunero egingo da izena emateko aukera, 11:00etatik 12:00etara.

EDURNE
ESTETIKA
ZENTROA



Ile gehiegi eta gainera ile bihurria?
Depil Plus sistemarekin zure arazoa
ordutan konponduko dugu...

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

HORTZ
KLINIKA



Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel: 943 71 47 36
Eskoriatza

LANDETXE BERRIAREN INAUGURAZIOA

Aterbe izeneko landetxea inauguratu zuten lehengo zapatuan Leintz Gatzagan

Z.V.M.

Zapatuan, hilak 27, inauguratu zuten Gatzagako Aterbe landetxea. Lau urte iraun dute baserria berritzeko lanek. Maria Angeles Martin eta Francisco Azkona senar-emazteek ireki dute. Atsedean hartu eta inguruaz gozatzeko aukera eskaintzen du tokiak.

Zapatuan landetxe bat inauguratu zuten Gatzagan. Aterbe deitzen da. Egia esan, eraikina ez da berria; zaharberitutako egoitza da. Duela lau urte erosi zuten Maria Angeles Martin granadarrak eta Francisco Azkona arrasatearrak Gatzagako baserria.

Ordutik hona lan eta lan ibili dira. Landetxea egokitu aurretik, baina, euren etxebizitza dena berri zuten, mendira begira dagoen etxearen aldea, hain zuzen. Hori egokituta, bezeroentzako txokoa egiteari ekin zioten. Bisitariei dagokienez, "ez dugu oporretan datorren jendea bakarrik hartuko. Asteaz zehar ere hartu nahi ditugu bezeroak, eta batez ere ibarreko enpresetara datozen langileak erakarri nahi ditugu". Horretarako, eguenean

hainbat enpresatako jendearekin batu ziren, etxea ezagutu eta jendea bertara eraman dezaten.

LANDETXEAREN EZAUGARRIAK

Goitik behera egokitu dute senar-emazteek etxea. Poliki-poliki egin dituzte lanak. Euren asmoa da bezeroei atsedean hartzeko toki ezin hobea eskaintzea. Horretarako, lau logela bikoitz egokitu dituzte landetxean; bakoitza bere bainugelarekin. Bestetik, guztiek erabilgarri izango dituzten egongela eta taberna.

Baina landetxeak badu bitxikeria bat. Atsedean hartzeko bi gela berezi aurki daitezke Aterben: sauna eta bainu turkiarra. Hamam edo bainu turkiarra saunaren alternatiba da, eta geroago eta zale gehiago ditu.

Atsedean hartzeko aukera bikaina Aterben eskaintzen dutena. Eguna lanean igaro duten langileak landetxera iritsi eta sauna hartuta erlaxa daitezke. Eta asteburu pasa joaten direnek, horrez gainera, Gatzagako inguruak bisitatzeko aukera izango dute, herria ezagutu, paisaiatzat gozatu, eta Maria Angeles eta Franciscoren eskuetan etxeako ardura guztiak utzi.



Sauna eta 'Hamam' edo bainu turkiarra eskaintzen diete bezeroei landetxean

Duela lau urte hasi zituzten lanak; erdia etxebizitza pribatua eta beste erdia landetxea

Xehetasun guztiak zaindu dituzte Aterbe egiterako orduan, bezeroa eroso sentitu dadin.

Ekitaldi kulturalak antolatu guran, apirilaren 6rako batzarra antolatu dute

Z.V.M.

Askotariko gaiak landu ziren martxoaren 25ean herrian egin zen osoko bilkuran. Hala ere, ekintza kulturalak antolatzeko herritar gutxi agertu zen udaletxean. Horregatik apirilaren 6an beste batzar bat egin gura dute herriko gazteekin, ekimenak antolatzeko asmoz.

Aurreko eguenean, hilak 25, osoko bilkura egin zuten Gatzagako udaletxean. Bertan, hainbat gai jorratu zituzten. Besteak beste, Okondoko baso ustiapenak eta mendi publikoetan hainbat banaketa esleitu gura zituzten. Beste gai bat ere landu zuten: herriko ekitaldi kulturalak finkatu nahi zituzten osoko bilkuran.


Okondoko baso ustiapenaren kasuan, Udaletik adierazi duteenez, hutsik geratu da postua.

EKITALDI KULTURALAK

Ekimen kulturalak antolatzeko euren laguntza ezinbestekoa dela uste dut-eta". Hala ere, eguenean jende gutxi gerturatu zen udaletxera, eta horregatik, datorren apirilaren 6rako beste batzar baterako dei egiten die herritarrei zinegotziak. "Batez ere gazteak etortzea nahiko genuke. 18:30ean izango da hitzordua udaletxean.

Bertan, herriko jaiak antolatuko ditugu, besteak beste. Rock kontzerturen bat edo antolatu gura dugu irailerako", adierazi du Gatzagako zinegotziak. Hala ere, Andramaixak irailaren 8an dira, eguaztenean. Horregatik, aurreko asteburura edo ondorengora igaro gura dituzte ekintzak.

Iaz, ibarreko eta inguruetakoa lau taldek egin zuten emanaldia Andramari egunean: Never Surrender, Sakre, Drakes eta Totemkinek, hain zuzen ere. Aurtengoan ere hainbat talde ekarri gura dituzte, eta horregatik egingen diete herriko gazteei batzarrrerako deialdia, jai denen gustukoa izan dadin. Baina ez zen musika emanaldi bakarra izan, egunero egon ziren-eta dantzaldiak herriko plazan.



Aurten iaz baino jende gehiago erakarri nahi dituzte Andramarixetan.

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN


Euskal Herriko Itzulia

Martitzenean, apirilaren 6an
20:30ean



Ikustekoa!

EUSKAL
HERRIKO
ITZULIA
Babeslea:



Mota guztietako gidatzeko
baimenak ateratzeko aukera.
LARRINGANEK.

Ordutegia, zure beharretara
egokitua.
LARRINGANEK.

Testak egiteko CD bat etxera
eramateko aukera,
irakaslearen jarraipen osoarekin.
LARRINGANEK.


Berria!

Gogo pixka bat.
NORBERAK.



Basabe poligonoa F-0-7
Aretxabaleta

Garibai etorbidea 5
Arrasate



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



Alto Deba
margoak

DEKORAZIO PINTURA
PINTURA INDUSTRIALA
FATXADAK

Tel. eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25




J.SANCHEZ
ITURGINTZA

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10
ARETXABALETA
Tel. eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

Dintura eta dekorazioa



San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tel.- Faxe: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tel.-Faxe: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo sailmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezin automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Otalora 14 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 16 10

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro 14, behea ESKORIATZA
Tel.-Faxe: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturalak,
urbanizazio, kontratak
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Araba ibilbidea, 17 eta 25
*Tel.: 943 79 28 41 *Fax: 943 79 79 06
*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
*E-mail: kurtzebarri@euskalnet.net



Koop. Eik.

Basabe poligonoa D-2-1
117 posta kutxa
ARETXABALETA
Telefona eta faxe:
943 79 78 45
Poltsikokoa:
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana 16 Tel.: 943 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA

IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187